297. zk.
Bigarren aroa
Martxoak 15
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Trenaren norabidea Irunen
4-5. orrialdeetan

Kirolak
Gimnasia Erritmikoa. Irun Hiria txapelketa

9. orrialdea

ERREFUXIATUEN EGOERA, IRUNDARREN BEGIETATIK

3- Erreportajea Txingudi Bertso Eskola
6- Erreportajea Bidasoaldeko Elkarte Feminista eta I-Romi
7- Publirreportajea Bertako igogailuak
8- Kirolak Erreleboen lasterketa
11- Haurren Lanak Belaskoenea HH
12- Gazteen lanak Belaskoenea LH3
14- Gazte infor
15- Agenda

Argazkia: Amaia Oca.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

ANAKA 15 URTE

Egonaldi iraunkorrak

- Aldi baterako egonaldiak
- Familiaren atsedenerako egonaldiak
- Errehabilitazioa, operazioen eta gaixotasunen ondokoak
- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako egonaldiak.
- Eguneko zentroak, 365 egunetan irekita, garraioarekin
- Babespeko apartamentuak

Argazki lehiaketa

Alejandro Lopez
San Miguel Anakako etxe zahar bat.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 43515

Ignacio Zuloaga Kalea

1924ko urriaren 25eko Osoko Bilkuran Batzorde Iraunkorraren proposamenez jarri zuten Ignacio Zuloaga kalearen izena. Mendibilen dago eta Juan de Albisu eta Zuberoa kaleen perpendikularra da.

Eibarren jaio zen Ignacio Zuloaga, 1870ean. Familian bertan hasi zen bere formazio artistikoa, zizelkariak eta armagileak baitzituen inguruan. Prado museoan ere ikasi zuen, bertan aztertu zituelarik Greco, Velazquez eta Uranga. 19 urte urte zituela Erromara joan zen, eta gero Parisera. Bertan, Rusiñol, Uranga eta beste zenbait margolariekin bizi izan zen.

Mende hasieran ospea lortu zuen, eta horrekin lasaitasun ekonomikoa etorri zitzaion, bere artea garatzen jarraitu ahal izateko.

Iruni dagokionez, esan beharra dago 1925eko abuztuaren 21ean, Zuloaga Gipuzkoako Seme Kuttun izendatzeko proposamenari atxekitzea erabaki zuela Udalak. “Mujeres de Sepúlveda” margolana, Irungo Udalari oparitu zion.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Gipuzkoako herriartekoan parte hartzen ari da Txingudi Bertso Eskola

Eskualdeko hogei lagun daude lehian, bi taldetan banatuta

“Hitza jolas, bertsoketan
Bidasoako lurretan
Txinguditarren erronka
Txirritakumeen kontra”

Horixe izan da Txingudi I taldearen agurreko leloa, Ereñotzuko taldearen aurkako lehian. Gipuzkoako Herriartekoko saioa izan da, martxoaren 3an, Hazia Kultur Elkartean. 40 lagun inguru bildu dira afarian eta ondorengo bertso saioan. Bi talde aurkeztu ditu Txingudi Bertso Eskolak, eta bina saio egingo ditu bakoitzak, herriartekoko lehen fasean.

Bertso eskolek antolatu dute Gipuzkoako Herriartekoa, Bertsozale Elkartearen babesarekin. Banakako txapelketarekin alderatuta, diferentzia handiena da, azken fasean izan ezik, bertso eskolek beraiek antolatzen dituztela saioak. Elkarteak, saioetan burutu beharreko ariketak eman dizkie, baina gainerakoa, bertso eskolek kudeatzen dute. “Guk aukeratzen dugu lokal batean edo elkarte batean egin, afaria antolatu, edo ez... Formatua librea da”, azaldu du Manu Goiogana Txingudi II taldeko kideak.

> “Bertsolari oro animatuko nuke noizbait gai jartzaile aritzera”
>
> **Manu Goiogana, bertsolaria**

Beste izaera bat du, gainera, beste dinamika bat. Taldeka egiten delako alde batetik. Bestetik, giroa “lasaiagoa” eta “ludikoagoa” dela ere zehaztu du Goioganak: “Txapelketa hitza kendu diote”. Herriartekoa, beraz, bakarkako txapelketa osatzera dator: “Txapelketa aukera ona da bertsolariontzat. Baina lau urteko epea, luzeegia zen guretzat”. Behar horretatik sortua da herriartekoa, baina badu beste helburu bat: bertso eskolak elikatzea, jendea bertso mundura hurbildu araztea. Ikusle moduan, jakina, edo taldeetako partaide, baita ere. Izan ere, herriartekoko taldeetan, lau figura daude: bertsolaria, gai jartzailea, epailea eta ordezkaria.

Txingudiko taldeetan, adibidez, badaude partaide batzuk, kantatzen hasi baino lehen, gai jartzaile edo epaile lanean ari direnak. “Ez nuke esango bide naturala denik. Baina egia da gai jartzaile izatea, errazagoa izan daitekeela, etxean prestatu dezakezulako. Kezka bat gutxiago duzu jenderen aurrean”, argitu du Manu Goioganak: “Bertsolari oro animatuko nuke noizbait gai jartzaile aritzera. Epaileekin berdin, oso erraza baita haien lana kritikatzea. Edozein modutan, oso ondo datoz biak, bertso saioen funtzionamendua ezagutzeko”. Gipuzkoako herriartekoko lehen fasean, talde bakoitzak bi saio egingo ditu, etxean bat, eta kanpoan bestea. Multzo bakoitzeko onena pasako da hurrengo fasera. Hamabi geldituko dira bigarren fasean, eta lau onenek finalerdiak jokatuko dituzte.

> “Erakutsi dugu ez garela lau lagun. Jende multzo handi bat dugu, gogotsu eta indartsu dabilena”
>
> **Manu Goiogana, bertsolaria**

Sasoiko dago bertso eskola

Aukera ona izan da herriartekoa Txingudi Bertso Eskolarentzat. Erronka ere bai, bi talde osatu dituelako. Dena den, helburuak bete dituela aitortu du Manu Goioganak: “Erakutsi dugu ez garela lau lagun. Jende multzo handi bat dugu, gogotsu eta indartsu dabilena”. 2008an sortu zen Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea. “Orduan, gehien-gehienak irundarrak ginen”. Gaur egun, bailara mailako Txingudi Bertso Eskola kudeatzen du elkarteak. Helduen bertso eskola, hasiberriak diren helduena, gaztetxoena eta bertso tailerra antolatzen ditu.

Herriartekoan parte hartzeaz gainera, Bertsotruk bertso eskolen arteko topaketetan ere ari da Txingudi Bertso Eskola. Gainera, hilean behin bertso saioa antolatzen du Kabigorri ateneoan. “Beste hainbat saio izaten ditugu urtean zehar, Euskararen Egunak direla, Korrika dela... Bestalde, ikusten dugu pixkanaka gero eta gehiago kontuan hartzen gaituztela herriko ekimenetan: Euskal Jiran edo Santo Tomas egunean, adibidez”. Bertso eskolaren martxaren balorazio baikorra egin du Goioganak. Badu kezka bat, alabaina: “Zaila da gazteak erakartzea, hain da zabala eskolaz kanpoko jardueren eskaintza”. Ari dira, pixkanaka, gazteak gerturatzen, baina hurrengo urteetan jarraituko ote duten da Goioganaren zalantza. Horretarako, garrantzitsua izango da elkarteak jardueren kopuruari eta bizitasunari eustea.

Irun hiriaren etorkizuna markatuko duten bi proiektu handi ditu udalak agendan, burdinbidearekin lotuta

Trenari estu lotuta dago Irun hiriaren historia garaikidea. 1863.urtean iritsi zen burdinbidea, eta eraldatze itzela ekarri zuen, arlo sozialean, demografikoan eta ekonomikoan, baita hirigintzari dagokionean ere. Ondorio zuzenak eduki zituen hiriaren hedapenean, ondorengo hamarkadetan zehar. "Iraganak bezala, Irunen etorkizunak ere harreman zuzena du trenarekin", baieztatu du José Antonio Santano Irungo alkateak, Trenbideari Buruzko VIII. Informazio Jardunaldietan. Irungo Hiritar Foroak antolatu du, martxoaren 2an, Ficoban. Irun hiriarekin lotutako bi proiektu aztertu dituzte: trenbideen espazioaren erabilera, eta Abiadura Handiko Trenaren iritsiera. Aldaketa handiak eragin ditzakete hirian, epe ertainean.

"Atzean gelditzeko arriskua dugu, errepidezko garraioarekiko mendekotasun handiarekin"

Marisol Garmendia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun ahalduna

"Nekazaritza lurrak galtzeak, epe luzeko ondorio larriak dakartza, ezin izango baitugu elikadura burujabetza gauzatu"

Bea Arana, AHT Gelditu Elkarlana taldeko kidea

Proiektu bereiziak dira, baina harremana dute. AHTaren iritsierak, trenbidearekin lotutako espazioaren eraberritzeari bultzada eman diezaiokeela uste du alkateak. Aukera ez baliatzea "akats historikoa" litzatekeela adierazi du. Izan ere, Euskal Y-ari buruzko harremanak berreskuratu dituzte Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Azpiegituren Sailak. EAEko hiriburuetarako sarrera adosteko lanean ari dira jada. Gainera, azken aurreikuspenen arabera, Astigarragaren eta Irunen arteko tartea 2019rako egon daiteke prest. "Hegoaldera, trenak ezin izango du aurrera jarraitu. Iparraldera begira, ordea, joko handia emango du, orduan", aipatu du Santanok. Frantziako TGVk Donostiarainoko bidea izango du, hortik aurrera: "Konexio horrekin, BAB(Baiona, Angelu, Biarritz)rekin lehiatu ahal izango dugu, arlo askotan".

AHTaren iritsiera "gehiegi" berandutzen ari dela salatu du Marisol Garmendia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun ahaldunak (PSE-EE): "Atzean gelditzeko arriskua dugu, errepidezko garraioarekiko mendekotasun handiarekin. AHTa ezinbestekoa da, lehiakorrak izaten jarraitu ahal izateko". Trenak inbertsio berriak, negozio aukerak, eta turistak erakartzeko ahalmena izango duela uste du Garmendiak. Ez hori bakarrik, Gipuzkoako garraiobideen ardatz izan behar duela adierazi du Mugikortasun ahaldunak. Etorkizuneko trena koordinatuagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa izango dela azpimarratu du.

Iraunkortasun hori zalantzan jartzen duenik ere bada, hala ere. Bea Arana irundarrak urteak daramatza AHT Gelditu Elkarlana dinamikan parte hartzen. Garmendiaren hitzen aurkako argudioak eman ditu: "Gasen isurketak edo kutsadura elektromagnetikoa aipa ditzakegu". Aranarentzat, ordea, larriena da AHTa hedatzearekin batera, basoak eta nekazaritzako lurrak galtzen direla: "Basoek, gasen isurketen kaltea murrizten dute, gure birikak dira. Nekazaritza lurrak galtzeak, epe luzeko ondorio larriak dakartza, ezin izango baitugu elikadura burujabetza gauzatu". Izan ere, globalizazio ekonomikoaren ereduarekin lotu du Aranak AHTaren proiektua. Garraiobideen garapenak "mendeko" sistema sortzen duela adierazi du: "Milaka kilometrotatik ekartzen dizkiguten elikagaien mende gaude. Distantzia luzeak zeharkatzen dituzte salgaiek, eta horretarako, energia kopuru itzelak kontsumitzen dituzten garraiobideak behar ditugu".

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor 1957 Bacalaos

Trenaren norabidea

“Etxebizitzak egongo dira, baina aukera ekonomiko berrietarako gunea izango da, batez ere, berrikuntzari lotua”

José Antonio Santano, Irungo alkatea

Trenbideen espazioaren erabilera berriak

AHTaren iritsiera baliatuta, trenbidearekin lotutako espazioa eraberritzeko proiektua berreskuratu nahi luke Irungo Udalak. Sustapen Ministerioarekin eta ADIF trenbide azpiegituren administratzaile den enpresa publikoarekin elkarrizketak eduki ditu dagoeneko. Proiektuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere parte hartu behar luketela uste du José Antonio Santanok. “Gipuzkoako hiri eraberritze handiena izango da”, baieztatu du alkateak. Bere garaian, Bilbo industrialaren birsortzerako helburuarekin eratu zuten Bilbao Ria 2.000 proiektuarekin konparatu du. 53 hektarea hartzen dituzte trenbideek Irunen (100 futbol zelai). Hiriaren erdian daude, gainera. ADIF da lursail gehienen jabea, Espainiako Zerga Administrazioko Agentziarekin batera.

Lehen fasean, Aduana kalearen ondoan dagoen eremua berreskuratu eta eraberritu nahi luke Irungo Udalak. “Gehien-gehiena, aspaldi abandonatutako trenbideak eta pabiloiak”, zehaztu du Santanok. Bigarrenean, barianteko zubira arteko eremua estaltzea aurreikusten du, eta bide batez, tren eta autobus geltoki berria eraikitzea. Hirugarren fasean, CAF enpresaren ondoko trenbideak berreskuratu nahi lituzke udalak (Beste 100.000 metro karratu dira). Laugarrenean, barianteko zubitik Bidasoa ibairainoko eremuan jarri nahi luke arreta (15 hektarea) merkantziarekin lotutako gunea eratzeko. Egitasmo horrek lotura izango luke Lezo-Gaintxurizketan eraiki nahi duten plataforma logistikoarekin. Itsaso eta trenbide bidezko merkantzien konexioa egingo luke plataformak. Kasu horretan ere, Gaintxurizketako lur emankorrak galduko liratekeela salatu du Bea Aranak: “Zentzugabekeria izugarria iruditzen zaigu. Gaur egun, nekazaritza ekologikorako erabiltzen ari dira lur horietako asko. Agintarien aldetik, inteligenteena litzateke horrelako jarduerak bultzatzea. Horiek baitira gure etorkizunaren berme”.

Aduanako eremuaren etorkizuna

Santanok aipatu du urtea amaitu aurretik eman nahi lituzkeela lehen urratsak. Horretarako, ADIFen eta Espainiako Zerga Administrazioko Agentziaren lurren permuta lortu beharko du. Eremuari erabilera “mistoa” eman nahi diotela nabarmendu du Santanok: “Etxebizitzak egongo dira, baina aukera ekonomiko berrietarako gunea izango da, batez ere, berrikuntzari lotua”. Merkataritza gunea eraikitzea ere aurreikusten du udalak. Gogor kritikatu du asmoa, Bea Aranak: “Espazio hori ez da eremu libre bat izango, hiritarren topagune bat. Kapital pribatuaren eskuetara jango da. Ikusten ari gara horixe dela udalaren joera, hirigintzari dagokionez”.

2023rako bukatu nahi luke lehen fasea Irungo Udalak. Ordurako, Euskal Y amaituta egon daitekeela aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, besteak beste, Bergarako korapiloa askatzeko negoziazioak burutu beharko ditu Iñigo Urkulluren gobernuak. Bergarara hurbiltzeko deialdia luzatu du, hain zuzen ere, Bea Aranak, martxoaren 19rako. Zuhaitz landaketa egingo du AHTaren aurkako dinamikak. “Bergarako korapiloko lurretan 1.200 zuhaitz landatuko ditugu”. Aranak azaldu du 12:30etan egin dutela hitzordua, Bergarako Angiozarren, erakundeen politika “garapenzaleen” aurka. Halako salaketei aurre egiteko baieztapena egin du Marisol Garmendia Mugikortasun ahaldunak: “Ez da alferreko kapritxo bat. Nahitaezkoa da, lehiakorrak izaten jarraitzeko”. Luze joko du, oraindik, AHTaren inguruko eztabaidak.

Indarrak batu dituzte I-Romik eta Bidasoaldeko Elkarte Feministak, martxoaren 8an

Martxoaren 8arekin lotutako hurrengo hitzorduak:

Martxoak 16, osteguna
19.00: Hitzaldia, María Morales Carson idazlearekin, Palmera Montero zentroa, 2. aretoa (Gaurko Andreak elkartea).

Martxoak 17, ostirala
19.30: Hitzaldia, "Emakume fatala, patriarkatuaren gizartearen aurkaritza gisa" Naroa Gonzalezen eskutik, Palmera Montero zentroa, 5. aretoa (Bidasoaldeko Elkarte Feminista).

Martxoak 22, asteazkena
17.00h: "Gogoratzen nauzuenetan" liburuaren aurkezpena; Asun Casasola sariaren ipuin bilduma da, Bertsolari Uztapide, 6 (Argoiak Elkartea eta Bilgune Feminista).

Martxoak 23, osteguna
19.00: Mahai ingurua, Estefanía Beltrán de Heredia Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuarekin, Palmera Montero zentroa, 2. aretoa (Gaurko Andreak Elkartea).

Elkarlan egitasmoaren aurkezpena egin dute I-Romi emakume ijitoen elkarteak eta Bidasoaldeko Elkarte Feministak, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Izan ere, zenbait jarduera elkarrekin aurrera eramateko bat egin dute bi elkarteek. Momentuz, aldizkako zineforum bat antolatzen hasi dira. “Lehenengo urratsa baino ez da”, aurreratu du, hala ere, Maritxu San Pedro Bidasoaldeko Elkarte Feministako presidenteak.

Oiasso Museoan egin dute aurkezpena, eta bi elkarteen arteko elkar ezagutzan sakontzeko baliatu dute aukera. *Emakume orotarikoak baina berdinak. Elkarrekin askoz gehiago* goiburua jarri diote. “Denbora generaman elkarlanean, baina interesgarria iruditu zitzaigun beste pauso bat ematea, eta esperientziak elkarbanatzea”, adierazi du Esther Martinez I-Romi elkarteko presidenteak.

2009an sortu zen I-Romi Irungo emakume ijitoen elkartea. Martinezek azaldu du, elkartea eratu zuten emakumeek Cáritasen josketa tailer batean elkar ezagutu zutela. Helburu argi batekin erabaki zuten I-Romi sortzea: “Emakume ijitoek formazioa jaso eta lan egin dezaketela erakutsi nahi genuen”. Emakume ijitoen ahalduntzean lan egin izan dute aurrerantzean, hezkuntzan, lan arloan, osasunean eta kulturan, besteak beste. Formazioari ematen diote garrantzia, bereziki, askatasunerako bide izango dela uste dutelako.

Ideia horrekin bat egiten du Bidasoaldeko Elkarte Feministak. Zenbait tailer antolatzen ditu, urte osoan zehar: autodefentsa, ekonomia feminista, ahalduntzea, batukada. Ekarpen txikiak diren arren, balio handia dutela uste du Maritxu San Pedro elkarteko presidenteak: “Berdintasunaren aldeko borroka olibondo bat landatzea bezalakoa da. Badakizu bilobek jasoko dituztela fruituak”.

Hemendik aurrera elkarlanean ariko dira I-Romi eta Bidasoaldeko Elkarte Feminista. Bigarreneko kide den Charo Arribasek baieztatu du helburu komunak dituztela: “Gure jatorria edozein izanik ere, behar berdinak ditugu denok”.

Arratsaldean, elkarretaratzea

Oiassoko topaketaren ondoren, ikastetxeetako haurrek flashmob bat egin dute Zabaltza plazan, 11:00etan. Arratsaldean 18:45ean, emakumeen elkarteek eta hainbat hiritarrek parte hartu dute flashmob-ean. Aurora Beltrán Nafarraren Emakume abestia hautatu dute aurten. Koreografia, berriz, Toki-Alai eskolako neska-mutilek prestatu dute.

19:00etan elkarretaratzea egin dute Zabaltza plazan, Irungo Udalak eta hiriko emakumeen elkarteek deituta. ‘Egunero behar luke martxoaren 8a izan’ leloa zeraman pankarta zabaldu dute bertaratutakoek. Martxoaren 8arekin lotutako jarduerak hilabete osoan zehar luzatuko dira.

Bestalde, adierazpen instituzionala adostu du udalak, martxoaren 8aren harira, eta zortzi konpromiso hartu ditu, Europako Batasuneko Berdintasuneko Europako Gutunaren, nahiz emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legean ezarrita dauden betebeharren araberakoak. Udalak baieztatu du martxoaren 8a baino harago joan nahi duela, eta emakumeen berdintasunaren alde modu iraunkorrean lanean aritzeko konpromisoa hartu duela.

Igogailuen mantenua eraberritu du Bertakok

24 orduko zerbitzua eskaintzen du enpresak, iraupen konpromisorik gabeko kontratuekin

Argazkia: Gover

Azken urtean, igogailuen mantenuaren sektorean gehien hazi den enpresa da Gipuzkoan. 300 bezeroen muga gainditu du Bertako Igogailuak kooperatibak, 2017ko otsailean. Bezeroen eta langileen eskubideak dira Bertakoren lanaren oinarri.

Enpresa multinazionaletan aritutako ingeniariek eta teknikariek osatu zuten kooperatiba, 2015eko irailean. “Sektoreak zeraman bidea kontuan hartuta, gure kabuz hastea erabaki genuen”, azaldu du Ibai Salazar Bertakoko ingeniari irundarrak. Hamar urteko ibilbidea dute sektorean, batez beste. Esperientzia hori baliatuta, igogailuen mantenuan alternatiba bat eskaintzeko asmoz batu zituzten indarrak. Instalazio berriak eta mantenua egiten dituzte. Urte beteko eta penalizaziorik gabeko kontratuak eskaintzan dituztela azpimarratu du Salazarrek: “Ez dugu inor derrigortu nahi gurekin gelditzera”. Urteko ehun eurotik aurrera kontrata daitezke Bertakoren zerbitzuak.

Bertako hautatzen duten komunitate eta enpresa guztietako igogailuetan, azterketa energetikoak egiten dituzte, ahal izanez gero, kontratatuta dagoen potentzia jaitsi ahal izateko. Bestalde, doako emergentzia telefonoa instalatzen dute, baita igogailu zaharrenetan ere. Izan ere, 2000.urtetik aurreko igogailuek ez dute telefonorik. Kontsumo gutxiko LED argiztapena ere jartzen diete, itzaltze automatikoarekin. Mugimendu sentsoreen bidez funtzionatzen dute. “Igogailu askok fluoreszenteak dituzte, egun osoan zehar. Hori alferreko gastua da”, adierazi du Ibai Salazarrek. Bertakok egun osoan zehar, 24 orduz eskaintzen duena, mantenua da. Zerbitzua “erreala” dela azpimarratu du Salazarrek: “Gainerako enpresa gehienek eskaintzen dute, baina erreskateetarako bakarrik. Guk matxuretarako ere 24 orduko zerbitzua dugu, urteko 365 egunetan”.

Kalitatea eta gertutasuna

Baliabide berrien aldeko apustua egiten du Bertakok. Azpimarratzeko modukoa da Pasarela deritzon sistema. Horri esker, bezeroek igogailua gelditu dela antzeman baino lehen, abisua jasotzen dute Bertako enpresako langileek. “Igogailua gelditu dela jakiten dugu, eta matxuraren arrazoia ere bai. Horrek asko arintzen ditu denbora eta kostuak”, argitu du Salazarrek. Gainerakoan, prebentzio lana egiten dute, eta igogailu guztiak hilabetean behin ikuskatzen dituzte. “Gure betebehar nagusia da segurtasuna bermatzea”, nabarmendu du Salazarrek.

Lan bolumenaren emendatzeak zerbitzuaren kalitatea murriztea ekarri du hainbat enpresatan. Bertakon, teknikari batek behar bezain besteko denbora har dezake igogailuaren konponketan. “Enpresak ezin du zehaztu zenbat igogailu mantendu ditzakeen langile bakoitzak, eta bakoitzarekin zenbat denbora eman behar duen langileak”. Langilearen baldintzak eta eskubideak bermatzen ditu, beraz, Bertakok. Eta bezeroarenak ere bai. Hizkuntzari dagokionez, nahi izanez gero, bezeroak euskaraz izan dezake harreman osoa Bertakorekin. Bai aurrez-aurrekoan, baita aurrekontuetan, kontratuetan, albaranetan eta gainerako dokumentazioan ere. Gertutasuna ez baitago kalitatearekin lehian.

Enpresa txikietan handiena

Aukera gehiago dauden arren, azken urtean Gipuzkoan egin izan diren mantenu aldaketa gahienak Bertakok egin ditu. Enpresa txikia izanik ere, handiagoek ematen dituzten zerbitzu guztiak eta berritzaileak diren beste batzuk ere eskaintzen ditu. Merkatuan agertzen diren aurrerapenak eskaintzen dizkie bezeroei. Horregatik, aldatzerako orduan, Bertako hautatzen dute gipuzkoar gehienek.

kontaktua: 943 90 34 50 eta emaila info@bertako.eus

BERTAKO IGOGAILUAK

1. 24 orduko zerbitzua abixu guztientzat
2. Pieza originalak
3. Euskerazko zerbitzua
4. Iraupen konpromisurik gabeko kontratuak
5. Orotariko zerbitzua 100 € tatik aurrera

Indarberrituta dator Errelebоen Lasterketa

Inklusibitatearen alde egin du aurten Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak

Iazko atletismo agendako berritasun nagusiari jarraipena ematea erabaki du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Bigarren edizioa izango du aurten Errelebo Lasterketak. BATen ez dira, hala ere, funtzionatzen duenarekin konformatzekoak. Alde batetik, 2x2x3 miliako lasterketa gehitu diote iazkoari (4xmilia). Bestalde, atletismo egokituari leku zabala egin diote aurten. Martxoaren 26ko goizean zehar egingo dituzte lasterketak, Colon Ibilbideko zirkuituan.

Goiz oso hartuko du Errelebo Lasterketa izena hartu duen ekimenak. Atletismoaz harago joango da, gainera. Hori dela eta, asko dira, babesleez gainera, antolaketan parte hartu duten erakunde eta eragileak: Irungo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Adegi Gipuzkoako Enpresarien elkartea, Aspegi Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Kemen pertsona ezinduen kirol kluba.

9:30etan izango da lehen hitzordua. Ttipi-ttapa adineko ibiltarien taldeak ibilbidea egingo du, lasterketen zirkuituan abiatuta. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoa arloak antolatzen du, eta 60 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzendua da. Super Amara BATek, bitartean, egun horretako Igande Sasoi prestatuko du. Hilean behin, igande batez Colon Ibilbidea ixten du Irungo Udalak, haurrei zuzendutako kirol jarduerak eskaintzeko. Martxoaren 26an atletismoa izango da protagonista, BATek antolatuta. Altuera jauzia, xabalina jaurtiketa edota hesietako probak egin ahal izango dituzte bertaratzen diren haurrek.

Lehen lasterketa 10:15ean izango da, iazko berdina: 4xmilia. Lauko taldeek parte hartuko dute, eta kide bakoitzak milia bat (1.609m) osatu beharko du, lagunari lekukoa pasa aurretik. Gizonezkoen taldeak, emakumezkoenak eta mistoak egongo dira. Talde arruntek parte hartu ahal izango dute, eta enpresetan osatutakoek ere bai. Enpresen parte hartzearen balorazio positiboa egin du Iñaki Iturrioz Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol teknikariak: “Pixkanaka ikusten ari gara enpresetan gero eta garrantzi handiagoa duela kirolak, langileen osasunean duen eraginagatik”.

Berritasun nagusiak

Iaz lasterketan parte hartu zutenetako batzuek, distantzia luzatzeko eskatu zieten antolatzaileei. Eskaerei erantzuteko asmoz, 2x2x3miliako lasterketa asmatu du BATek. 11:30etan izango da. Lauko taldeek parte hartuko dute, baina bikoteka eramango dute lekukoa. 3 milia osatu beharko ditu bikote bakoitzak (5 kilometro inguru), lekukoa taldekideei pasa baino lehen. Zirkuitutik atera gabe egingo dute korrika, eta kategoriak ere, 4xmilia lasterketako berdinak izango dira.

Bi lasterketetan, aniztasun funtzionala duten gizon-emakumeek parte hartu ahal izango dute aurten. “Gainerako parte hartzaileek bezala korrika egin ahal izango dute. Proba inklusiboa eskaini nahi dugu”, adierazi du Ibon Muñoz Super Amara BATeko kirol zuzendariak. Asmo horren balorazio baikorra egin du Igor Otaegi Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko presidenteak: “Aniztasun funtzionala duen jendeak herri lasterketa baten beroa sentitu ahal izateak balio handia du”.

Lasterketen artean, beste bi proba egongo dira. Alde batetik, kirol egokituko milia egingo dute, 11:00etan. Handbike-ean eta gurpil-aulkian aritzen direnen arteko lehia izango da. Muñozek azaldu du kasu horretan inklusiorik ez dagoela, segurtasun neurriengatik. “Ikusgarria izango da lasterketa”, aurreratu du, dena den, Otaegik. Haren ondotik, milia erdia egin ahal izango dute adimen urritasuna duten haurrek. Lagunak gonbida ditzaten eskatu du Otaegik, inklusioa “benetakoa” izan dadin.

> “Enpresetan gero eta garrantzi handiagoa du kirolak, langileen osasunean duen eraginagatik”
>
> **Iñaki Iturrioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol teknikaria**

> “Aniztasun funtzionala duen jendeak herri lasterketa baten beroa sentitu ahal izateak balio handia du”
>
> **Igor Otaegi, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko presidentea**

Sariak eta izen-emateak

Sari banaketarekin amaituko da ekimena. Aurten, kategoria bakoitzeko irabazleek soilik jasoko dute. “Bestela, saribanaketa amaigabea izango genuke”, argudiatu du Ibon Muñozek. Izen-emateak kirolprobak.com web gunean egin daitezke jada. Antolatzaileek nabarmendu dute korrikalarien poltsa bat osatuko dutela aurten, parte hartu nahi duen, baina talderik ez duen jendearentzat. “Iaz era inprobisatuan elkartu genituen zenbait lagun. Aurten modu antolatuagoan egin nahi dugu”, argitu du Muñozek.

Korrikalari bakoitzeko 7 euro balio du 4xmilia lasterketako izen-emateak, eta 10 euro 2x2x3miliakoak. Bietan parte hartu nahi duenak, 14 euro ordaindu beharko du. Barnean daude asegurua, dortsala, kamiseta, lekukoa txip-arekin, janaria eta edaria, kontsigna eta dutxak. Dortsalak egunean berean jaso ahal izango dira Zabaltza plazan, edo bezperan bestela, 10:30etatik 13:00era, Palmera Montero gizarte zentroan.

Argitara atera dute urtetan egindako lana

Gimnasia Erritmikoko Irun Hiria Txapelketa antolatu du A.D.Irunesak, lehen aldiz

Ez ohiko lehiaketa hartu du Artalekuk martxoaren 4ko arratsaldean. Gimnasia Erritmikoko Irun Hiria Txapelketaren lehen edizioa antolatu du A.D.Irunesa elkarteak. Hamabi urtetik gorako 200 haur eta gazte baino gehiago bildu dira kiroldegian. Etxeko klubaz gainera, Euskal Herriko leku ezberdinetako hamazazpi elkarte ere bertaratu dira.

Ilusioz hartu dute A.D.Irunesan, orain arte, hiritik kanpo lehiatu behar izan baitute ia beti. Nerea Badiola (1982) eta Naiara Villanueva (1992) entrenatzaileek bi hamarkada daramatzate elkartean. Haientzat, denbora guzti horretan, bigarren lehiaketa izan da Irunen.

"Kirolaz harago, bizitzarako baliagarriak izan daitezkeen irakaspenak ematen ditu gimnasia erritmikoak"

Naiara Villanueva, entrenatzailea eta gimnasta

"Malgutasun handia behar da, baina indarra ere bai"

Nerea Badiola, entrenatzailea

Zein balio izan du zuentzat Irun Hiria Txapelketa antolatu ahal izateak?

NAIARA VILLANUEVA: Ikaragarria. Orain arte ezin izan dugu lehiaketarik antolatu, azpiegitura arazoengatik. Haurren gurasoek kanpora joan behar izan dute beti, haiek lehiatzen ikustera. Txikienen gurasoentzat, batez ere, ikaragarria izan da. Hiru eta sei urte arteko 40 neska ditugu, eta haien gurasoek ikasturte amaierako jaialdian soilik ikusten zituzten, orain arte. Lehen aldiz gozatu ahal izan dute, zuzenean, gimnasia erritmikoko lehiaketa batekin.

NEREA BADIOLA: Maila handiko jendea ekarri dugu, gainera. Saioa Garcia Espainiako txapeldunak erakustaldia eman du. Eta Espainia mailan lehiatzen dabiltzan bi mutil ere eduki ditugu, gimnasia erritmikoa gizonezkoentzat ere zabalik dagoela azpimarratzeko.

Orain arte lehiaketarik antolatu ezin izan badu ere, A.D.Irunesak urteak daramatza lanean.

NAIARA VILLANUEVA: Ibilbide luzea du klubak, 1994an sortu baitzen. Beti egon izan gara Irunen, nahiz eta leku batetik bestera mugitu izan garen, gure beharren arabera. Gaur egun Artalekuko frontoian gaude, baina trinketea ere alokatu behar izaten dugu, ez garelako sartzen. Gure eragozpenik handiena altuerarena da, aparatuak jaurti egin behar direlako. Azken Portun saiatu ginen, adibidez, baina sabaian jotzen genuen.

Zenbat neska-mutil dituzue?

NEREA BADIOLA: 220 inguru. Mutil bat dugu, bederatzi urte ditu, eta oso gustura ari da. Gimnasta gehienak 16 urtetik gorako neskak dira, eta hori da, hain zuzen ere, inguruko klubek gehien baloratzen dutena. Hori ez da ohikoa beste elkarte askotan, neskek kirola alde batera uzten dutelako lehenago.

Guretzat oso atsegina da. Azkenean haurrak ondo pasatzera joaten dira, edo askotan, gurasoek bidalita. Adin nagusikoak direnak, berriz, benetan gustuko dutelako etortzen dira. Ikasketekin edo lanarekin uztartzen dute gimnasia, eta ahalegin handiak egiten dituzte entrenatzeko. Naiara adibide ona da, entrenatzaile izateaz gainera, gimnasta ere badelako oraindik.

Zergatik jarraitzen duzu gimnasia erritmikoan entrenatzen?

NAIARA VILLANUEVA: Estetikoki, kirol erakargarria da: maillotak, makillajea etab. Bestalde, ikaragarri gustatzen zait taldekako lehia. Urtetan zehar elkarrekin entrenatuta, sortzen diren harremanak oso-oso estuak dira. Gaur egun taldean dugun giroa eta batasuna izango ez banitu, beharbada, ez nuke entrenatzen jarraituko.

NEREA BADIOLA: Klubarentzat ere ona da, helduenak erreferente direlako haurrentzako. Debozioz ikusten dute lanean ari direla, eta aldi berean entrenatzen, edo epaile lanetan.

Ahalegin handia eskatzen du gimnasia erritmikoak?

NEREA BADIOLA: Eskolarteko mailan, edo amateurretan, ez dituzte ordu asko sartzen. Federatuta daudenek askoz gehiago. Hala ere, egia da oso errepikakorrak direla entrenamenduak, ariketa berdina behin eta berriro egin behar delako. Gero, lehiaketan, egindako lan guztia bi minutuko ariketa batean dago jokoan. Kontzentrazio akats txiki batean, dena hankaz gora joan daiteke.

Nabarmenduko nuke, baita ere, fisikoki gogorra dela, lesio asko izaten direla. Malgutasun handia behar da, baina indarra ere bai.

NAIARA VILLANUEVA: Kirolaz harago, bizitzarako baliagarriak diren irakaspenak ematen ditu gimnasia erritmikoak: denbora antolatzea, esfortzurako gaitasuna... Gimnasia erritmikoan, Espainiako selekzioan dagoen jende askok medikuntza, ingeniaritza eta bestelako unibertsitate ikasketak egiten ditu. Hori, beste kirol batzuetan, ez da horren ohikoa.

Ayuntamiento
Udala
irun
www.irun.org
euskararen
bideari jarraituz
EUSKARAREN HILABETEA
2017KO MARTXOA
zuk euskaraz
haiek euskaraz
nik euskaraz
guk euskaraz

Belaskoenea HH

Belaskoenea LH3

EUSKARAREN EGUNEAN...

Gure eskolan, abenduan, euskararen eguna ospatu genuen. Ekintza ezberdinak prestatu genituen egun horretan, euskaraz hitz egiten ondo pasatzeko: euskal kirolak, euskal dantzak, karaokea eta ...gehien gustatu zitzaiguna: **PINTXO-FESTA**.

Gela bakoitzak pintxo bat prestatu zuen: errezeta aukeratu, osagaiak zerrendatu eta erosi, lana denen artean banatu ,pintxoak prestatu eta apaindu. Behin eginda zeudenean, gelan txukun-txukun jarri genituen eta beste gelakoei gonbidapena pasa genien. Ordu bat egon ginen, pintxoak, ziklo osorako prestatzen. Ondoren, gelaz gela joan ginen gureak eta beste ziklokideen pintxoak dastatzeko. **ZE ONAK DENAK!!!** Denok nahi genuen errepikatu eta errepikatu.

Oso ekintza polita eta dibertigarria izan zen. Beste ziklokoek ere parte hartu zuten eta, denera... eskolan, hamasei pintxo ezberdin dastatzeko aukera egon zen. Hemen dauzkazue hirugarrzen zikloko ikasleok prestatu genituenak.

OSO EKINTZA DIBERTIGARRIA ETA GOZOA IZAN ZEN

Hirugarren zikloko ikasleak.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959ko ekaina). (El Bidasoa, 1959-VII-17)

Konparaziyuak eta

TXURIYA: «Elurra biñon txuriyagua»

GORRIYA: «Infernuko diarruan adarrak biñon gorriyua»

«Begi´zan orren sugurra: piper morrua»

BELTZA: «Pikia biño beltzagua»

BERDEA: «Itsasoko belarran koloria»

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Standby amaiezina

Greziako errefuxiatuen egoera ezagutu dute, bertatik bertara, Amaia Ocak eta Jaione Berridik

Argazkiak: Amaia Oca.

Errefuxiatuei buruzko albiste erauntsia eten izanak ez du esan nahi arazoa amaitu egin denik. Milaka dira Grezian eta Balkanetan, betez ere, harrapatuta dauden errefuxiatuak. Ez atzera eta ez aurrera. Gerratik edo egoera jasanezinetatik ihesi, eta amestutako Europara ailegatzeko modua ezin topatu. Milaka dira, baina ez dira zenbaki hutsak. Izen-abizenak dituzte, eta istorio zirraragarriak ere bai. Horietako batzuk ezagutu dituzte Amaia Oca eta Jaione Berridi irundarrek. Kios irlan egon ziren udazkenean, Donostiako Itxaurrondoko Gastronomia Elkarteak martxan jarritako Zaporeak proiektuko sukaldean lanean. Otsailean berriro egon dira Kiosen, baita Atenasen eta Tesalonikan ere.

Hiru aste besterik ez zituzten pasa lehen egonaldian. Sekulako talka eragin zien, ordea. Irunera bueltan, kosta zitzaien haien bizimodu arruntera egokitzea. Epe laburrean itzuli dira, gainera, eta hurrengo bidaian pentsatzen ari dira, dagoeneko. “Hogei urte barru, dokumentalak eta pelikulak egingo dituzte, eta historia liburuetan agertuko da egun bizi dugun migrazio masiboa. Gure buruari galdetuko diogu, nola izan zen posible? Nola ez zen egon erantzun irmoago bat?”, iradoki du Jaione Berridik. Errefuxiatuen krisiaren arrazoi nagusia “pasibotasuna” dela salatu du: “Hona, azkenean, produktuak soilik heltzen zaizkigu: argazki bat, bideo bat. Baina benetan gertatzen ari da. Jendea hiltzen ari da, denon utzikeriagatik. Nor da horren arduradun? Gobernuak bakarrik?”.

Berridik eta Ocak ere, komunikabideetan ikusitakoa, eta lagunen batek kontatutakoa besterik ez zuten ezagutzen, Greziako irletako errealitateari buruz. Kiosera iritsita, harrituta gelditu ziren bizitzaren ironia krudelekin. Uharte ederra baita, urtetan turista mordoa erakarri izan duena. Egeo itsasoaren ekialdean dago, Turkiako kostaldetik oso gertu. Horregatik, Ekialde Hurbileko migratzaileen ohiko jomuga bilakatu da azken hilabeteetan, Lesbos uhartea bezala, adibidez. Irlan, jende askok eta askok bizimodu arrunta daramala azaldu du Jaione Berridik: “Ez baduzu enteratu nahi, ez dakizu errefuxiatu esparru bat dagoenik ere. Burbuila moduko bat da”. Salbuespenak-salbuespen, greziarrak gainditu egin ditu egoerak. Horrek “arriskua” dakarrela uste du Amaia Ocak: “Greziako egoera ekonomikoa ez da batere ona. Gainera, errefuxiatuen krisia etorri zaie, eta azkenean, horrelako testuinguru batean, eskuin muturraren diskurtsoak indar handia hartzen du”.

Burbuila bat da Souda errefuxiatuen esparrua. Baina burbuila hauskorra, babesgabea. Neguan euri asko egin du Kiosen, eta kanpamentua putzu bihurtu da aldiro. Plastikozko dendetan bizi dira errefuxiatuak. Neguan hotz ikaragarria pasatzen dute, eta udaran, sekulako beroa. Iritsi berriak direnek, hondartzan dituzte dendak. “Uretatik oso-oso gertu”, zehaztu du Ocak. Kanpamentuak sarrera-irteerak kontrolatzeko segurtasun neurriak dituela ere aipatu du: “Akreditaziorik gabe, ezin duzu sartu”.

Ziurgabetasun egoeran bizi dira

Esparruko errefuxiatuentzako bazkariak prestatzen lan egin zuten Ocak eta Berridik, udazkenean, Zaporeak proiektuarekin. Urtebete egin du Zaporeak-ek, Kiosen lanean. Bertako sukaldea utzi du martxoaren hasieran, Euskal Herritik laguntza ematen jarraitzeko. Hasieran, janariaren banaketan, errefuxiatu batzuek aurpegira begiratzen ez zietela gogoratu du Amaia Ocak: “Inori ez zaio gustatzen janaria lortzeko ilara egin behar izatea. Limosna eskatzearen sentsazioa dute. Ikaragarri pobreak dirudite, eta haietako asko ez dira inoiz pobreak izan”. Lanaldia amaituta, errefuxiatuen esparrura hurbiltzen ziren, jendearekin hitz egiteko, haien egoerak ezagutzeko, eta babesa eskaintzeko asmoz.

Kanpamentua gizarte txiki bat dela aipatu du Ocak. Haiek Kiosen egon ziren garaian, 21 herrialde ezberdinetako jendea zegoen, 800 lagun inguruko eremu batean. “Hainbesteko ezberdintasunak daude haien artean, edozein momentutan eztanda egiten duela egoerak. Iskanbilak sortzen dira, lapurretak daude etab.”, azaldu du Jaione Berridik. Esparruan tentsioa nabaria dela baieztatu dute biek. Kontuan hartu behar da errefuxiatuek bizi duten ziurgabetasuna. Elkarrizketetarako datak ematen dizkiete, haien egoerak aztertzeko. Hilabete batzuez elkarrizketa prestatzen egoten dira, eta askotan, azken momentuan atzeratu egiten dizkiete. Elkarrizketak egin ondoren ere, bizpahiru hilabetez egon behar izaten dute erantzunaren zain. “Gu erotu egiten gara lana galdu dugulako, adibidez. Imajinatu dena galdu duzula, eta zure etorkizuna elkarrizketa baten mende dagoela”, nabarmendu du Berridik.

Harreman estuak egin dituzte

Halako egoera batean, errefuxiatuek mafiekin duten harreman naturala ulertzen dutela adierazi dute emakumeek. “Bide legalak funtzionatzen ez baldin badu, mafiak bihurtzen dira haien irtenbide”, argitu du Amaia Ocak: “Atzera egiteko aukerarik ez dute. Aurrera egin behar dute, halabeharrez”. Bigarren bidaian, Kiosen ezagututako zenbait errefuxiaturekin elkartu dira Atenasen. Bide legaletik, edo ez, baina pauso txikiak eman ahal izan dituzten seinale. Denbora laburrean, oso harreman estua egin dute haietako batzuekin. “Sortzen diren konexioak puruak dira. Ez da egoera normala, eta harremanak, ondorioz, ohi baino biziagoak dira”, baieztatu du Berridik.

“Gu geu izan gaitezke”, errepikatu dute behin eta berriro. Izan ere, Grezian ezagutu duten jende askok bizimodu arrunta zuen haren herrialdean. Unibertsitatean ikasketak burutzen ari ziren gazteak, edo haiek bukatuta, lanean ari zirenak ezagutu dituzte. “Haien Facebook profila ikusten duzu, eta duela bi urte, kafea hartzen zeuden terraza batean, gu bezalaxe”, aipatu du Berridik, ingurura atsekabez begiratuta: “Momentu honetan oso babestuta sentitzen gara, baina gauzak okertu daitezke, eta berdina gerta dakiguke”. Errefuxiatuekin enpatizatzeko eskatu dute Berridik eta Ocak, eta bakoitzaren ahalmenaren arabera, ekarpenak egiteko. Ez baitute itxaropen handirik, gobernuen esku hartzearen inguruan.

ERREPORTARI BEZALA DOAN BIDAIATU NAHI AL DUZU?
Europatik bidaiatzeko 550 € irabazi erreportaje bat egiten duzun bitartean!

Zure ibilibidea aukeratu eta bidaia antolatu. Erreportaje bat egin argazkien bidez, bideoen bitartez, bloga, edo idatzita? gai bat ikertzeko helburuarekin (alemanez edo ingelesez).

Non? Europako herrialdeak aukeran.

Zenbat denborarako? 3-6 aste.

Noiz? 2017an (iraila baino lehen).

Zenbatekoa: 550 €

Baldintzak: 18-27 urte bitartekoa izan.

Epea: Martxoak 19

Informazio gehiago: http://schwarzkopf-stiftung.de/en/awards/reises-tipendien/

#IIINSTANT1EAN INSTAGRAMEKO LEHIAKETA, II. EDIZIOA
Instagrameko irudien lehiaketa da. Irudi baten bitartez, zure bizitzeko instant bat azaltzea da gaia: zer duzun gustuko, musika, kirola... nola bizi zaren edo zure eguneroko une esanguratsuak zein diren. Erakutsi ezazu zuk ere sarean ondo ibiltzen dakizula!

Nork har dezake parte?
13-17 urte bitarteko Gipuzkoarrak. Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina argazki edo bideo aurkez ditzake.

Nola parte hartu?
Norberaren profilaren bidez, @gipuzkoangazte erabiltzaileari jarraitu eta http://www.gipuzkoangazte.eus/eu/web/gipuzkoangazte/gure-programak/instant1ean

Argazkia atera edo bideoa egin, eta 2 modu daude:
1. #Instant1ean + #sareanONdo traolak jarri.
2. "Ni ere #sareanONdo! Eta Zu?" esaldia txertatu + #Instant1ean traola gehitu.
Zure gaztelekuaren aipamena ere txertatu dezakezu.

Epea: maiatzak 7 (barne).

Parte hartu, Instant1ean:
Parte hartu Instagramen irudi baten bitartez zure bizitzako instant ba azalduz: zer duzun gustuko, musika, kirola... nola bizi zaren, edo zure eguneroko une esanguratsuak zein diren azalduz.

Igo zure argazkia eta erakutsi zure RolloOna, sarean:
Erakutsi ezazu sare sozialetan ere zerbait egin dezakezula zure ingurunea eta zure lagunena hobetzeko. Sormena erabiliz, argazkia igo eta erakutsi sarean badakizula segurtasuna zaindu eta zure identitatearen kudeaketa egokia egiten. Argazkia edo bideoa igotzean, aldi berean, esaldi honi erantzun beharko diozu. Ni ere #sareanONdo! eta zu?

ERREPORTARI BEZALA DOAN BIDAIATU NAHI AL DUZU?
Europatik bidaiatzeko 550 € irabazi erreportaje bat egiten duzun bitartean!

Zure ibilibidea aukeratu eta bidaia antolatu. Erreportaje bat egin argazkien bidez, bideoen bitartez, bloga, edo idatzita? gai bat ikertzeko helburuarekin (alemanez edo ingelesez).

PAPER BIRZIKLATUA ETA AZALEZTAPENA, HURRENGO TAILERRA !!!
Jakingo dugu zer material eta baliabide behar ditugun paper birziklatua fabrikatzeko, eta, pausoz pauso, prozesua aurrera eramango dugu, ematen dizkigun aukerak esperimentatuz: koloreak, testurak, formak.

Data: martxoak 21
Ordua: 18:00 - 19:30
Izen emate lekua: IGazte, Martindozenea Gaztelekua
Adina: 16 - 22 urte
Kopurua: 15 lagun

irun gazte informazioa
www.irun.org/igazte

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

BOCABEATS. BAKARRIZKETA + BEATBOX KOMEDIA

Bocabeats Comedia bikotea (Ivan Ivenian, Aitor Vidaurreta) berdingabea da beatboxa eta bakarrizketa komikoak konbinatzen. Zazpi urtean, 400 agertokitan baino gehiagotan izan da, eta jo eta ke segitzen du. Orain Irunen!!!!!!

BAKARRIZKETA + Beatbox komedia

Eguna: martxoak 17, ostirala

Ordua: 20:00

Lekua: Martindozenea Gaztelekua

Kolaboratzailea: gazteARTEan eta Lady RED Production & Management

Martxoak 16

Zer? Feminismo o Barbarie dokumentala. Dokumentala bikotearen esparruan ematen den bortizkeria psikologikoari buruzkoa da. Irantzu Varela Urrestiazala bere zuzendaria kazetaria da eta berdintasunaren gaineko lantegietan, feminismoan, maitasun erromantikoan, lidergoan eta komunikazioan hezitzailea

Non? Kabigorrin.

Ordua? 19:00.

Prezioa: Doan.

Martxoaren 17tik 19ra

Zer? "Vida" Italiako Zirkua.

Non? Ficoban.

Ordutegia?
- Ostirala, martxoak 17, estreinaldia 19:00etan.
- Larunbata, martxoak 18: 17:00 eta 19:30.
- Igandea, martxoak 19: 12:00 eta 17:00

Webgunea: ilcircoitaliano.com

Martxoaren 17tik 19ra

Zer? Antzinako objektuei buruzko VII. Azoka.

Non? Ficoban.

Ordutegia? Ostirala 17:00-21:00 / Larunbata eta igandea: 11:00-20:00.

Prezioa: 3 euro.

Telefonoa: 696364704 / 696198759.

Martxoak 18

Zer? Andra Mari Abesbatzaren 50. urtemugaren ospakizuna. Programan nabarmentzen da Fauré-ren Requiem obra, organoan jotzeko bertsioan.

Zuzendaria: Andoni Sierra. Alize Mendizabal (organoa), Lucía Gómez Aizpurua, Jesús García Aréjula (ahotsak)

Réquiem (G. Fauré)

Non? Junkal Parrokian.

Ordua? 20:00etan.

Prezioa: Doan

Martxoak 19

Zer? Etapa Baztandik: Arizkun - Arizkun Irungo Mendizaleak antolatuta.

Prezioa? Doan

Webgunea? http://irungo-mendizaleak.com/

Martxoak 27 eta 28

Zer? Gipuzkoako turismo enpleguaren I. Azoka Turislan. Azoka lan bila dabiltzan pertsonen eta sektore turistikoko enpresen arteko elkargunea.

Prezioa? Doan

Non? Ficoban.

Turislan

IX KREA BIDASOA2017

Noiz? Martoxak 30.

Ordutegia? 09:00-20:00

Non? Ficoban.

Prezioa? Doan.

Aurtengo topaketaren leloa DNA BERRITZAILEA izango da.

Aurreko edizioetan bezala, pertsona ekintzaileek, enpresek eta bestelako organismo publiko eta pribatuek parte hartuko dute, tailer eta jarduera programa zabalean. Parte hartzaileek kontaktuak egin, negozio aukerak identifikatu, ezagutzak zabaldu, eta beste esperientziak, joerak edota arrakasta kasuak ezagutu ahal izango dituzte.

Webgunea? http://www.bidasoa-activa.com/

EZ KONTZAK 2017-2018

-ARGAZKI PAREGABEAK ETA DESBERDINAK
-EZKONTZA ZERBITZUETAN AUKERA ZABALA
-MOMENTUAN INPRIMATUKO ARGAZKIAK
-KONTSULTATU KONPROMISORIK GABE

Gover
ESTUDIO

-Argazki sozialak
-Publizitatea
-Ekitaldiak
-Ezkontzetan espezialistak

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Fernando Vergara
fotógrafo

Avda. Letxunborro 100-2°drcha 20305-Irun
943 840 113 - 647 930 484